



GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA, UPV/EHUren KIMIKA ZIENTZIEN FAKULTATEKO

(Fakultateko Batzarrak onartua 2018ko azaroaren 23an)

1. ARTIKULUA: EZAUGARRI OROKORRAK ETA IZAERA

1.1 Gradu Amaierako Lana (GRAL) gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduiko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

1.2. GRALa defendatu eta ebaluatzeko, egiaztatu egin behar da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela eta, hortaz, titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dituela, GRALari dagozkionak izan ezik, jakina.

1.3 GRALa Jabetza Intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lanaren egilea izango da, Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera. Lan honen memoria digitalki argitaratuko ahal du UPV/EHUK, eta ADDI (Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala) zerbitzuaren bidez sarrera libre izango du; hori horrela egingo da izena emateko dokumentuan bestelakorik adierazi ezean.

1.4.- Kimikako Graduan, lan hau Gradu Amaierako Lana izeneko nahitaezko irakasgaiari dagokio eta 18 ECTS ditu.

2. ARTIKULUA: HELBURUAK

2.1.- GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.

NORMATIVA SOBRE LA ELABORACIÓN Y DEFENSA DEL TRABAJO DE FIN DE GRADO DE LA FACULTAD DE CIENCIAS QUÍMICAS (UPV/EHU)

(Aprobada en Junta de Facultad el 23 de noviembre de 2018)

ARTÍCULO 1: ASPECTOS GENERALES Y NATURALEZA

1.1. El Trabajo de Fin de Grado (TFG) supone la realización por parte de cada estudiante y de forma individual de un proyecto bajo la supervisión de uno o más directores o directoras, en el que se integren y desarrollen los contenidos formativos recibidos, capacidades, competencias y destrezas adquiridas durante el periodo de docencia del Grado.

1.2. El TFG debe ser defendido y evaluado una vez que se tenga constancia fehaciente de que la estudiante o el estudiante ha superado todas las materias restantes del plan de estudios y dispone, por tanto, de todos los créditos necesarios para la obtención del título de Grado, salvo los correspondientes al propio TFG.

1.3. El TFG es un trabajo protegido por la Ley de Propiedad Intelectual. En consecuencia, la titularidad de los derechos de propiedad intelectual corresponderá a quien lo haya realizado, salvo que se haya establecido de otra manera en el documento de asignación del Trabajo Fin de Grado que cada estudiante haya aceptado, en los términos y con las condiciones previstas en la legislación vigente. La memoria de este trabajo la podrá publicar digitalmente la UPV/EHU para su acceso abierto a través de su servicio ADDI (Archivo Digital para la Docencia e Investigación) salvo que se solicite lo contrario en el documento de inscripción del proyecto.

1.4. En el Grado de Química este trabajo corresponde a la asignatura obligatoria de nombre Trabajo Fin de Grado y supone 18 créditos ECTS.

ARTÍCULO 2: OBJETIVOS

2.1. El Trabajo Fin de Grado deberá estar orientado a la aplicación de las competencias generales asociadas a la titulación, a capacitar para la búsqueda, gestión, organización e interpretación de datos relevantes, y a desarrollar un pensamiento y juicio críticos, lógicos y



2.2.- Zehazkiago, helburu nagusia graduan lortutako gaitasunak finkatu eta sendotzea da eta gaitasunok praktikan aplikatzeko trebetasunak garatzea. Honetarako, lan bat egingo da ikasketetan eta espezialitatean lortutako hezkuntza akademikoari lotutako problema bat aztertuz eta analizatuz eta ebazpide egokia diseinatuz eta, hala balegokio, konponbidea osatuz.

2.3.- Proiektua egiten den bitartean, honako gaitasun hauek garatu eta egiaztatuko dira:

1. Proiektuan proposatutako helburuak lortzea, lana egin bitartean sor litezkeen zailtasunak autonomiaz gaindituta.
2. Egin beharreko lana planifikatu eta gestionatzea.
3. Egindako lana zehatz-mehatz jasoko duen memoria idaztea, dokumentu zientifikoen egiturari jarraituz eta estilo zehatz eta formala erabilita.
4. Egindako lana jendaurrean aurkeztu eta defendatzea.

3. ARTIKULUA: IZENA EMATEA ETA GRALa ESLEITZEA

3.1.- Ikastegiak epea irekiko du hurrengo ikasturtean GRALa egiteko asmoa daukaten ikasleek izena eman dezaten. Ikasle horiek gaindituta izan behar dituzte graduko 168 kreditu eta "Izena emateko orria" aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Izena emateko orrian ikasleak adierazi behar du GRALerako gaia adostuta daukan zuzendariren batekin. GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatuko duen ere adierazi behar du, eta, era berean, lana egiteko truke akademikorik egingo duen ere zehaztu behar du.

3.2.- Izena emateko epea behin bukatuta, Gradu Koordinatzaileen Batzordeak Unibertsitateak ikasleei eskaini beharreko GRALen gutxieneko kopurua zehaztuko du, eta sailei eskaria egingo zaie kontuan izanda bakoitzak irakaskuntzan daukan ehunekoa:

Saila	Kimika Aplikatua	PZT	Kimika Organikoa	Fisika
GRALen ehunekoa	% 46,4	% 26,2	% 15,5	% 11,9

creativos.

2.2. En concreto el objetivo principal es consolidar las competencias conseguidas en el grado y desarrollar habilidades para la aplicación práctica de esas competencias. Para ello se realizará un trabajo consistente en el análisis de un problema relacionado con la formación académica en sus estudios y especialidad, el diseño y, en su caso, la implementación, de una solución adecuada.

2.3. Durante la realización del proyecto se desarrollarán y verificarán las siguientes habilidades:

1. Conseguir los objetivos propuestos en el proyecto resolviendo de forma autónoma las dificultades que surjan en su desarrollo.
2. Planificar y gestionar el trabajo a realizar.
3. Redactar una memoria que recoja de manera exhaustiva el trabajo realizado con una estructura adecuada a un documento científico y en un estilo riguroso y formal.
4. Exponer y defender públicamente el trabajo realizado.

ARTÍCULO 3. INSCRIPCIÓN Y ASIGNACIÓN DE TFG

3.1 El Centro abrirá un plazo para que los y las estudiantes que durante el siguiente curso académico tengan intención de realizar el TFG y tengan superados 168 créditos del grado, entreguen en Secretaría el "Impreso de Preinscripción". En la preinscripción se deberá indicar si el o la estudiante ha acordado el tema del TFG con algún director o directora. También se especificará la lengua en la que desea elaborar y defender su TFG, así como si el mismo se va a llevar a cabo dentro de un programa de intercambio académico o no.

3.2. Una vez finalizado el plazo de preinscripción, la Comisión de Coordinadores de Grado calculará el número mínimo de TFG a ofertar a los alumnos y los solicitará, especificando plazo, a cada Departamento en función de sus porcentajes de docencia:

Departament o	Química Aplicada	CTP	Química Orgánica	Física
Porcentaje de TFG	46,4%	26,2%	15,5%	11,9%



Sail bakoitzari esleitu beharreko kopurua zehaztean, kontuan hartuko dira saileko irakasleekin adostutako lanak. Kontuan hartuko dira aurreko ikasturteetan ikasleei esleitutakoak izan arren zuzendariarekin ados jarrita defendatu gabe geratu direnak epea luzatu egin delako.

3.3.- Irakasleek, saileko zuzendariarekin ados jarri ondoren, GAUR aplikazioan sartuko dute GRALerako proposamena, horretarako zehaztutako epean.

Proiektua eskaintzean, zuzendariak honako informazioa zehaztu behar du:

- Proiektuaren izena.
- Zuzendaria eta zuzendarikidea, halakorik izanez gero.
- Deskripzioa: laburpena eta helburuak
- Hizkuntza: memoria eta defentsa zein hizkuntzatan egin daitekeen: euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez. Ikusi 4.3 artikulua.
- Jabetza intelektual eta argitalpen eskubideak
- GRALa ikasleren batekin adostuta badago, ikaslearen datuak

3.4.- GRALaren edukia arlo hauetako batekoa izan behar da:

- Lan esperimentalak, kimikarekin lotuak
- Berrikusketak eta ikerketak bibliografikoekin lotutako lanak
- Lan profesionalak, tituluak prestatzen duen jardun profesionalaren arlo desberdinekin lotutakoak
- Zuzendariak eskainitako beste gai batzuk, GRALeko koordinatzaileak balioztatuak Gradu Batzordearen oniritziarekin.

3.5.- Sail bakoitzak, gutxienez, hala dagokion GRAL kopurua eskaini behar du ikasturte bakoitzerako.

3.6.- GRALak ikerketa lana izanik oinarri ikerlanerako gizakiak, giza laginak edo giza datuak, animaliak, agente biologikoak eta genetikoki eraldatutako organismoak erabiliko badira, UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordeak (IJET) alde iritzia eman behar du.

3.7.- GRALerako eskainiko diren gaiak zehazteko epea behin bukatuta, GRALeko koordinatzaileak, Gradu Batzordearen oniritziarekin, baliozkotu egingo ditu

El número de TFG correspondiente a cada Departamento incluirá los trabajos acordados con profesorado del Departamento. No se incluirán los trabajos asignados en cursos anteriores a estudiantes que no los hayan defendido y hayan sido prorrogados por acuerdo con los directores de los mismos.

3.3. El profesorado, con la conformidad de la dirección de su departamento, introducirá durante el plazo establecido las propuestas de TFG a través de GAUR.

En la oferta de cada proyecto, el director o directora incluirá la siguiente información:

- Título del proyecto.
- Director/a y en su caso codirector/a.
- Descripción: Resumen y objetivos.
- Idioma: indicará si la memoria y defensa podrán realizarse en euskara, castellano o inglés. Ver artículo 4.3.
- Propiedad intelectual y derechos de publicación.
- En caso de TFG acordados con algún estudiante se indicarán los datos de éste.

3.4. El contenido de cada TFG podrá corresponder a uno de los siguientes tipos:

- Trabajos experimentales relacionados con la Química.
- Trabajos de revisión e investigación bibliográfica.
- Trabajos de carácter profesional relacionados con los diferentes ámbitos de ejercicio para los que cualifica el título.
- Otros temas ofertados por un/a director/a y validados por el/la Coordinador/a de TFG con el visto bueno de la Comisión de Grado.

3.5. Cada Departamento será responsable de ofertar cada curso académico al menos el número de TFG que le corresponda.

3.6. Los TFG planteados como investigaciones que requieran la utilización de animales, agentes biológicos u organismos genéticamente modificados como sujetos o material de investigación deberán contar con informe favorable de la Comisión de Ética en la Investigación y la Docencia (CEID) de la UPV/EHU.

3.7. Cerrado el plazo de introducción de ofertas de TFG el/la



irakasleek GAUR aplikazioan eskainitako lanak, eta, orduan, jendaurrean jarriko dira ikasleek aukera ditzaten.

3.8.- Behin GRALen eskaintza argitaratuta, ikasleak gaia aukeratu behar du GAUR aplikazioaren bidez: bost gai aukeratu behar ditu lehentasun hurrenkera zehaztuta. Irakasleak ikaslearekin GRALerako gaia adostuz gero, gai hori ez da aplikazioan agertuko aukerako gaien artean. GRALerako gaia aukeratu ahal izateko, gutxien dela 168 kreditu izan behar dira gaindituta graduan, eta matrikula eginda izan behar da ikasketa plana bukatzeko gainditzeko dauden irakasgai guztietarako, GRAL irakasgaia barne. Gaia urriaren 31a baino lehen aukeratu behar da. Ondoren, Graduko Koordinazio Batzordeak astebeteko epea izango du ikasle bakoitzari GRALeko gaia esleitzeko, eta ikasle batek baino gehiagok gai bera aukeratuta badu, espediente akademikoa hartuko da oinarri esleipenerako. Ikasleari, bai eta irakasleari ere, esleitutako gaiaren berri emango zaio.

3.9.- GRALa UPV/EHUtik kanpoko erakunderen batean egingo badu ikasleak, osorik edo zati bat, hitzarmena egin beharko da UPV/EHUK dituen hitzarmen ereduak jarraituz.

3.10.- Beharrezkoa izanez gero, GRALaren Jabetza Intelektual Partekatuari buruzko agiria sinatuko da, eta ikastegiko idazkaritzan aurkeztuko da gordeta gera dadin.

4. ARTIKULUA.- MATRIKULA ETA DEIALDIAK

4.1.- GRALerako matrikula ikasketa plana bukatzeko falta diren gainontzeko irakasgai guztiekin batera egingo da unibertsitateak matrikulatzeko ezarritako epearen barruan eta 18 ECTS kredituri dagozkion prezio publikoak ordainduta. Gainera, gutxien dela graduko 168 kreditu izan behar dira gaindituta.

4.2.- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialera aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.

coordinador/a de TFG, con el visto bueno de la Comisión de Grado, validará los trabajos ofertados por el profesorado en GAUR, quedando entonces publicados para la elección por parte de los o las estudiantes interesados.

3.8. Una vez publicada la oferta de TFG, los alumnos deberán realizar una selección en GAUR, eligiendo cinco de los trabajos ofertados con un orden de prioridad. Si se diera el caso de un TFG acordado entre un profesor y un alumno, dicho TFG no estaría disponible para el resto de alumnos en la aplicación informática. Para realizar esta selección será necesario tener superados al menos 168 créditos del grado y estar matriculado de todas las asignaturas requeridas para finalizar el plan de estudios incluido el propio TFG. Dicha selección deberá estar realizada para el 31 de Octubre. A partir de ese momento, la Comisión de Coordinación de Grado tendrá un plazo de una semana para asignar a cada alumno un TFG, en función de la demanda y del expediente académico, en caso de haber más de una solicitud para un mismo TFG. Dicha asignación se dará a conocer tanto al alumno o alumna como al profesor o profesora correspondientes.

3.9. Si el TFG se desarrolla en parte o en su totalidad en otras instituciones u organismos distintos a la UPV/EHU, se firmarán los convenios necesarios según los modelos establecidos por la UPV/EHU.

3.10. En caso necesario, se firmará el documento de Acuerdo sobre la Propiedad Intelectual Compartida del TFG y se entregará en la Secretaría del Centro para su custodia.

ARTÍCULO 4: MATRÍCULA DEL TFG Y CONVOCATORIAS

4.1. La matrícula del TFG se realizará, junto con la de todas las demás asignaturas requeridas para finalizar el plan de estudios, dentro del plazo general de matrícula que establezca la Universidad mediante el abono de los precios públicos que correspondan a 18 créditos ECTS. Además, será necesario tener superados al menos 168 créditos del grado.

4.2. La matrícula dará derecho a dos convocatorias oficiales en cada curso académico de acuerdo a lo establecido en el calendario académico aprobado por el Consejo de Gobierno. El alumnado que no haya defendido, o haya suspendido su trabajo en las convocatorias establecidas para el curso deberá volver a matricularse en el siguiente curso académico.



4.3.- Ikasleak matrikulan zehaztuko du GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen. Hala ere, ikasleak hizkuntza bakarrean eskainitako proiektu baterako eman badu izena, hizkuntza horretan egin eta defendatu beharko du GRALa.

4.4.- Gradu amaierako lanak defendatzeko egutegia Fakultateko Batzarrak onartuko du Graduako Koordinatzaileen Batzordearen proposamenari jarraituz. Egutegian lau aldi zehaztuko dira: hiru ohikoak, otsailean/martxoan, ekainean/irailean eta irailean; ezohiko bat, urrian. Urriko deialdia, baina, azken irakasgaia uztailan gainditu eta irailean GRALa gainditu ez dutenentzat baino ez da izango, edo, behar izanez gero, mugikortasun programetan egon direnentzako.

4.5.- Ikasleak karrera amaierako aparteko deialdia eskatu ahal izango du Graduako Ikasketen Gestiorako Araudian zehaztutako baldintzetan.

5. ARTIKULUA.- ZUZENDARIA

5.1.- Gradu Amaierako Lana graduan irakaskuntza ematen duen sail bateko irakasle batek edo Kimika Zientzien Fakultatera atxikitako irakasle batek zuzendu ahal izango du, eta irakasle bat baino gehiago izan daitezke lanaren zuzendari. Fakultateari lotutako doktoreak ere izan daitezke zuzendari, baldin eta zuzendarikiderik bada irakasleen kidegoko kide dena.

5.2.- Zuzendariaren lana da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari eta epaimahaiari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

5.3.- Ikasleak Gradu Amaierako Lan osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, proiektuak unibertsitatetik kanpoko tutore bat izan dezake. Horrelakoetan, graduan irakaskuntza duten sailen bateko kide den edo Kimika Zientzien Fakultatera atxikita dagoen zuzendari bat adostu behar da.

5.4.- Aparteko egoeraren baten ondorioz proiektuko zuzendariak edo zuzendarikideak bertan behera uzten

4.3. El alumnado especificará en la matrícula la lengua en la que desea elaborar y defender su Trabajo Fin de Grado. Sin embargo, si un alumno se preinscribiera en un proyecto ofertado en un único idioma, prevalecerá éste antes que el especificado por el alumno.

4.4. El calendario de celebración de las defensas de los Trabajos Fin de Grado será propuesto por la Comisión de Coordinadores de Grado y aprobado por la Junta de Facultad. Constará de cuatro intervalos temporales por año académico: tres ordinarios, en los meses de Febrero/Marzo, Junio/Julio y Septiembre, y uno extraordinario en Octubre, exclusivo para quienes, habiendo aprobado su última asignatura en Julio, han suspendido el TFG en Septiembre, o, en caso necesario, para los alumnos de programas de movilidad.

4.5. El alumnado podrá acogerse a la convocatoria extraordinaria Fin de Carrera en los términos previstos en la Normativa de Gestión de las Enseñanzas de Grado, y siempre que cumplan con los requisitos establecidos en ella.

ARTÍCULO 5: DEL DIRECTOR/A

5.1. El Trabajo de Fin de Grado se dirigirá por profesorado miembro de un departamento con docencia en el Grado o profesorado adscrito a la Facultad de Ciencias Químicas y podrá ser dirigido por más de una persona. Los doctores y doctoras vinculados a la Facultad también podrán dirigir siempre que exista un codirector o codirectora que forme parte del profesorado.

5.2. El trabajo de dirección consistirá en exponer a cada estudiante las características del trabajo, de orientarlo en su desarrollo y de velar por el cumplimiento de los objetivos fijados, así como de realizar el seguimiento y elaborar un informe escrito previo a la defensa del que se dará traslado a la estudiante o al estudiante y al tribunal evaluador.

5.3. Si la estudiante o el estudiante desarrolla parte del Trabajo de Fin de Grado o su totalidad en el marco de un convenio de prácticas en otras instituciones u organismos distintos a la UPV/EHU, el proyecto podrá ser tutorizado por personal ajeno a la universidad. En este caso se acordará un/a director/a entre el profesorado miembro de un departamento con docencia en el Grado o profesorado adscrito a la Facultad de Ciencias Químicas.

5.4. Si concurre cualquier circunstancia extraordinaria que haga abandonar a una persona la dirección o la



badu lana, sailak beste irakasle bat proposatu behar du lan hori betetzeko. Saila aldaketa hori ahalik eta arinen egiten ahalegindu behar da.

5.5.- Proiektua defendatzeko eskaria behin eginda, zuzendariak eta zuzendarikideak (zuzendarikiderik dagoenean) txostena egin behar dute eredu arautuari jarraituz. Txosten honetan zehaztuko dituzte egiaztatutako gaitasunak eta lanari buruzko iritzia. Kalifikazioa ere proposatuko dute. Txostena epaimahaiari bidaliko zaio, bai eta ikasleari ere, GAUR aplikazioaren bidez.

5.6.- GRALerako esleitutako lanak eta zuzendariaren eta zuzendarikidearen izendapenak ikasturte bateko iraupena izango dute, baina, bi aldeak ados jarriz gero, luzatu ahal izango dira.

6. ARTIKULUA.- EPAIMAHAIA

6.1.- Sailek bermatu behar dute bere irakasleek zuzendutako GRALen defentsarako behar beste epaimahai osatzen direla. Era berean, bermatu behar dute GRALa egiteko erabili diren hizkuntza guztietarako epaimahaiak osatuko direla.

6.2.- Sailak Gradu Batzordera bidaliko du epaimahaiak osatzeko proposamena, kontuan izanda epaimahaiak 3 kide titular eta ordezkoko bat izan behar dituela, guztiak, fakultateko irakasleak. Epaimahaiko burua eta idazkaria aukeratzeko, kategoria eta antzintasuna izango dira irizpide. GRALaren zuzendaria eta zuzendariordea ezin izango dira izan GRAL hori kalifikatuko duen epaimahaiko kide.

6.3.- Sailen proposamena entzunda, Gradu Koordinazio Batzordeak epaimahai bat izendatuko du aldi bakoitzean defendatuko den GRAL bakoitzerako.

6.4.- Zuzendariak edo zuzendarikideak 10 jarri badio Gradu Amaierako Lanari, lan horrek ohorezko matrikula lortzeko aukera izango du. GRALean Ohorezko matrikula lortzeko aukera daukaten ikasle guztiek Gradu Koordinazio Batzordeak izendatutako epaimahai baten aurrean defendatu behar dute lana; epaimahaia bakarra izango da guztientzat eta epaimahakide izango dira GRAL horietan parte hartu duten sailetako irakasleak.

6.5.- Beharrezkoa izanez gero, Gradu Koordinazio Batzordeak premiaz izenda dezake ordezkoko bat, kideren bat gaixorik edo lizentziarekin dagoenean edo antzeko

codirección de un proyecto, el departamento al que pertenezca deberá proponer a otra persona para sustituirla. El departamento tratará de que esto se haga a la mayor brevedad.

5.5. Tras la solicitud de defensa del proyecto el director o la directora y, en su caso, el codirector o codirectora, redactarán un informe siguiendo un formato estándar. En el informe indicará las competencias verificadas y la opinión que tiene del trabajo. También propondrán una calificación. El informe se enviará a los miembros del Tribunal de Evaluación y al o la estudiante por medio de GAUR.

5.6. La adjudicación del TFG y de la directora o director, y en su caso, de la codirectora o codirector, tendrán una validez máxima de un curso académico, pasado el cual podrán, por mutuo acuerdo, prorrogarse.

ARTÍCULO 6: TRIBUNAL DE EVALUACIÓN

6.1. Los departamentos garantizarán la formación de los tribunales necesarios para la defensa de los TFG que hayan dirigido sus profesores. Se deberá garantizar que haya tribunales para cada uno de los idiomas en los que se haya realizado algún TFG.

6.2. Los departamentos enviarán a la Comisión de Grado las propuestas de tribunales, que estarán compuestos por 3 miembros titulares y un suplente todos ellos pertenecientes al profesorado de la Facultad. Utilizando el criterio de categoría docente y antigüedad, se elegirá el Presidente y Secretario. El/la director/a o codirectores/as de un TFG no podrán formar parte del tribunal de calificación del mismo.

6.3. Oída la propuesta de los departamentos, la Comisión de Coordinación de Grado nombrará un Tribunal de Evaluación para cada TFG que se defienda en cada periodo de defensa.

6.4. Los Trabajos de Fin de Grado que hayan sido calificados por el director o directora, y por el codirector o codirectora con un 10 podrán optar a la mención de Matrícula de Honor. Todos los TFG que opten a Matrícula de Honor se defenderán ante un mismo tribunal nombrado al efecto por la Comisión de Coordinación de Grado y que estará constituido por profesores de los departamentos en los que los y las estudiantes candidatos hayan realizado su TFG.

6.5. Si fuera necesario, la Comisión de Coordinación de Grado podrá nombrar de urgencia un suplente, debido a



egoeraren batean, edo bermatzeko hizkuntza ulertuko duela.

7.- ARTIKULUA.- GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

7.1.- GRALa defendatu ahal izateko, ikasleak gaindituta izan behar ditu graduko kreditu guztiak, GRALekoak izan ezik. Fakultateko Batzarrak zehaztutako epeetan, GRALa defendatzeko eskaria egin behar du ikasleak GAUR aplikazioaren bidez, eta memoriaren kopia bat, pdf formatuan, barneko ADDI plataformara igoko du, horretarako berariaz prestatutako gunera. Defentsa behin eginda GRALak 9,0 lortu badu edo puntuazio handiagoa, ADDI irekian argitaratu ahal izango da egileek baimena emanda.

Memoria euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi ahal izango da, baina laburpen bat eta ondorioen atal bat izan behar du ingelesez idatzia. Memoria oso-osorik ingelesez idatzita badago, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera ere itzuli behar dira. Memoria Fakultateko Batzarrak matrikula egiteko zehaztutako epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da. Idazkaritzak memoriaren kopia elektronikoa bana helaraziko die epaimahaiko kideei.

7.2.- Deialdi bakoitzeko defentsarako aldia amaituta, Graduko Koordinazio Batzordeak epaimahaien osakeraren berri emango dio ikastegiko idazkaritzari, idazkaritzak GAUR aplikazioan jaso dezan informazio hori. Defentsako tokia, eguna eta ordua behar besteko denboraz jakinaraziko zaie kasuan kasuko irakasleei eta ikasleari.

7.3.- GRALaren defentsa jendaurrekoa izango da eta ikasleak berak egin beharko du fakultatean bertan eta adierazitako toki eta orduan. Xehetasun horiek gutxien dela hiru egun lehenago argitaratuko dira.

7.4.- Defentsa GRALaren memoria egiteko erabili den hizkuntza berean egingo da, proiekturako izena ematean zehaztutako hizkuntzan, hain zuzen ere.

7.5.- Ikasleak gehienez ere ordu erdiko tarte izango du defentsa egiteko eta tarte horretan lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu; ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkizketen galdera, argibide, komentario edo iradokizunei erantzuneko die.

enfermedad, licencia u otra causa similar de algún miembro, o para asegurar la comprensión en el idioma elegido.

ARTICULO 7: PRESENTACION Y DEFENSA DEL TRABAJO DE FIN DE GRADO

7.1. El alumno o la alumna que quiera defender el TFG deberá haber superado todos los créditos del Grado, excepto los del TFG. Dentro de los plazos establecidos por la Junta de Facultad, tendrá que solicitar defensa de su TFG a través de su perfil de GAUR, y subir una copia digital en formato pdf a la plataforma ADDI interno habilitada a este efecto. Tras la defensa, de podrán publicar en el ADDI abierto, con autorización de los autores, solamente aquellos TFG cuya calificación haya sido igual o superior a 9,0.

La memoria, redactada en euskara, castellano o inglés, contará con un resumen del trabajo y las conclusiones en inglés. En caso de que la memoria esté redactada íntegramente en inglés, el resumen y las conclusiones se traducirán también a al menos una de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Desde Secretaría se deberá hacer llegar una copia electrónica a cada uno de los miembros que constituyan el Tribunal de Evaluación.

7.2 Finalizado el periodo de solicitud de defensa de cada convocatoria, la Comisión de Coordinación de Grado transmitirá la composición de los Tribunales de Evaluación a la Secretaría del Centro para ser introducidos en GAUR. El lugar, fecha y hora de defensa se comunicarán al profesorado y alumnado implicado con suficiente antelación.

7.3. La defensa del TFG será pública y realizada por el estudiante o el estudiante en el lugar de la Facultad y en la fecha y hora en la que se le haya convocado. Estos detalles se habrán publicado con un mínimo de tres días de antelación.

7.4. Cada estudiante realizará la defensa en el mismo idioma en el que haya presentado la memoria de su TFG, según lo previsto al inscribir el proyecto.

7.5. Cada estudiante dispondrá de un tiempo máximo de media hora para la defensa, en la que deberá exponer los objetivos, la metodología, el contenido y las conclusiones de su proyecto, contestando con posterioridad a las preguntas, aclaraciones, comentarios y sugerencias que pudieran plantearle los miembros del Tribunal.



8. ARTIKULUA.- EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

8.1.- Epaimahaiak Gradu Amaierako Lanaren Gidan (titulua egiaztatzeko memorian zehaztutakoarekin bat datorrena) argitaratutako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuko du lana, eta, hain zuzen ere, honakoak kontuan hartuta: zuzendariak egindako ebaluazio jarraitua (% 20); lan idatziaren kalitatea (% 40); lanaren ahozko defentsa (% 40).

8.2.- Suspentso jarriz gero lanari, epaimahaiak txostena helaraziko dio ikasleari, lana hobetu eta berriz ebaluatzeraz aurkezteko aholkuak adierazita. Zuzendariari txostenaren kopia bidaliko diote.

8.3.- Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkezteke (AG)

0 - 4,9: Suspentso (S)

5,0 - 6,9: Nahiko (N)

7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)

9,0 - 10: Bikain (B)

Ohorezko matrikula lortu ahal izango dute 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleek, baina, betiere, gehienez ere Gradu Amaierako Lanaren defentsan kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen % 5ari baino ezin izango zaio eman aipamen hori. Aipamen hori lortu dezaketen ikasleek 6.4 artikuluan zehaztutakoari jarraituz defendatuko dute lana.

8.4.- Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki egingo dira baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du erabakia; erabaki horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

8.5.- Gradu Amaierako Lanaren ebaluazio akta unibertsitatearen ebaluazio araudiari jarraituz itxi behar da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura da akta behar bezala betetzea eta administrazio zerbitzuetara eramatea ikastegiak horretarako daukan prozedurari jarraituz.

ARTÍCULO 8: EVALUACIÓN Y CALIFICACIÓN

8.1. El tribunal llevará a cabo la evaluación conforme a los criterios de evaluación publicados en la Guía Docente del Trabajo Fin de Grado, ajustados a lo dispuesto en la memoria de verificación del título, que contempla una evaluación continua por parte del director (20%) así como la calidad del informe escrito (40%) y de la defensa oral del trabajo (40%).

8.2. En caso de obtener la calificación de suspenso, el tribunal hará llegar un informe al estudiante o a la estudiante con las recomendaciones oportunas para la mejora del trabajo y su posterior evaluación. Se enviará también una copia del informe al director o directora.

8.3. La calificación se otorgará conforme a la siguiente escala numérica de 0 a 10, con expresión de un decimal, a la que se añadirá su correspondiente calificación cualitativa:

No Presentado (NP).

0 - 4,9: Suspenso (SS).

5,0 - 6,9: Aprobado (AP).

7,0 - 8,9: Notable (NT).

9,0 - 10: Sobresaliente (SB).

La mención de "Matrícula de Honor" podrá ser otorgada a un máximo del cinco por ciento de los trabajos defendidos en cada periodo de defensa, a los que el Tribunal de Defensa haya otorgado una calificación igual o superior a 9,0. Los trabajos que opten a la dicha mención se defenderán de acuerdo a lo indicado en el Artículo 6.4.

8.4. La revisión o reclamación de las calificaciones finales de los TFG se llevará a cabo de conformidad con lo previsto en la Normativa en materia de evaluación de la Universidad, aunque en ese caso, por tratarse de tribunal, la revisión de la evaluación en primera instancia se realizará por el mismo tribunal y en la siguiente instancia será resuelta por la Comisión de Reclamaciones del centro; cuya resolución será recurrible ante el Rector/Rectora de la Universidad en alzada.

8.5. El acta de evaluación del Trabajo Fin de Grado se deberá cerrar de acuerdo con lo establecido en la Normativa de Evaluación de la Universidad, siendo responsabilidad del Secretario o Secretaria del Tribunal su correcta cumplimentación y entrega a los servicios administrativos conforme al procedimiento establecido



8.6.- Edozelan ere, GRALeko kalifikazioa ikaslearen espedientean jasota ageri behar da urriaren 31 baino lehen.

9. ARTIKULUA - KONFIDENTZIALTASUNA

9.1.- Ikasleak eta zuzendariak eskaria egin dezakete GRALaren defentsa konfidentziala izateko. Eskaria arrazoitua izan behar da, ikasleak eta zuzendariak sinatu behar dute, eta Graduako Koordinazio Batzordeari zuzendu behar zaio.

9.2.- Konfidentziala izateko eskaria onartuta duten lanak behar dezala identifikatuko dira fakultateko idazkaritzan. Epaimahaikideek konfidentzialtasun agiri arautua sinatu behar dute lanaren kopia hartu aurretik. Defentsa egin ondoren, epaimahaikideek suntsitu egingo dituzte GRALaren kopia guztiak. Idazkaritzan gordetako kopia ez zaio inori emango.

GRALa konfidentziala denean, eskaria egin daiteke defentsa ateak itxita egiteko edo bertaratu guztiek konfidentzialtasun agiri arautua sinatzeko.

10.- ARTIKULUA.- GRALa ETA TRUKE AKADEMIKOKO PROGRAMAK

10.1.- GRALa truke akademikoko programa baten barruan egingo duen ikasleak graduako ikasleak bete behar dituen baldintza berberak bete behar ditu GRALerako izena emateko.

10.2.- Ikasleak beste unibertsitatean GRALerako izango duen tutoreaz gain, fakultateko honetako zuzendari bat izango du arautegi honetako 5. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

10.3.- Mugikortasuneko programako ikasleak beste unibertsitatean GRALerako izan duen tutorearen txostena aurkeztu beharko dio Truke Programen koordinatzaileari, 5.5 artikuluan zehaztutakoari jarraituz; era berean, memoriaren kopia, pdf formatuan, barneko ADDI plataformara igo behar du. GRALaren defentsa beste unibertsitatean eginez gero, memoria jatorrizko hizkuntzan aurkeztu ahal izango du ikasleak, baina laburpen bat eta ondorioak ingelesez, euskaraz edo gaztelaniaz izan behar ditu.

por el Centro.

8.6 En todo caso, las calificaciones del TFG deberán constar en el expediente del alumnado matriculado en dicha materia antes del 31 de octubre.

ARTÍCULO 9. CONFIDENCIALIDAD

9.1. El estudiante o la estudiante y el director o directora podrán solicitar cuando se solicita la defensa que el TFG sea confidencial. La solicitud de confidencialidad dirigida a la Comisión de Coordinación de Grado incluirá la justificación y firma del estudiante y director o directora del TFG.

9.2. Los TFG a los que se otorgue la condición de confidenciales serán debidamente identificados en la Secretaría de la Facultad. Los miembros del Tribunal de Evaluación deberán firmar un documento de confidencialidad según modelo oficial con anterioridad a recibir la copia del trabajo. Una vez realizada la defensa, los miembros del tribunal evaluador destruirán los ejemplares del TFG que hayan recibido. La copia depositada en la Secretaría no se facilitará a ninguna persona.

Cuando el TFG sea confidencial, podrá requerirse que la defensa se haga a puerta cerrada, o que todos los y las asistentes al acto de defensa firmen un documento de confidencialidad según modelo oficial.

ARTÍCULO 10. TFG Y PROGRAMAS DE INTERCAMBIO ACADÉMICO

10.1. El alumnado que vaya a realizar el TFG en el marco de un programa de intercambio académico debe cumplir las mismas condiciones de inscripción de TFG que el resto de estudiantes de Grado.

10.2. Además del tutor o tutora del TFG en la universidad de destino, se asignará a cada estudiante un director o directora en esta Facultad, que debe cumplir lo estipulado en el Artículo 5 de la presente normativa.

10.3. Todos los alumnos de movilidad deberán entregar al coordinador de Programas de Intercambio un informe del tutor o tutora del TFG en la Universidad de destino, como se describe en el Artículo 5.5, y subir una copia digital de la memoria en formato pdf a la plataforma ADDI interno. Aquellos alumnos que hayan hecho la defensa oral en la universidad de destino, podrán presentar la memoria en el idioma original, siempre que incluya un resumen y conclusiones en inglés y en euskara o castellano.



10.4.- GRALa beste unibertsitatean gaudituta izan arren ez bada epaimahaiaren aurreko defentsarik egin, fakultate honetan egin beharko du defentsa ikasleak, horretarako izendatuko den epaimahaiaren aurrean eta ikastegiak zehaztutako deialdietako batean, eta, betiere, 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

10.5.- Beste unibertsitatean emandako kalifikazioa "pass" edo "no pass" bada, "pass" kalifikazioa 5 baten pareko izango da. Ikasleak nota igo nahi badu, aukera izango du GRALa Kimika Zientzien Fakultatean aurkeztu eta defendatzeko, fakultateak zehaztutako deialdiei eta 7. artikuluan jasotakoari jarraituz.

10.6.- Beste unibertsitatean lortutako kalifikazioa 10 bada, ikasleak aukera izango du Ohorezko matrikula lortzeko; horretarako, GRALa fakultate honetan defendatu beharko du horretarako osatutako epaimahaiaren aurrean eta 6.4 artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Defentsa aukeran daukan lehenengo deialdian egingo du, truke programako koordinatzaileak beste unibertsitateko kalifikazioa hartzen duenetik kontatzen hasita.

10.7.- Ikasleak gaudituta baditu graduako irakasgai guztiak, baina ez badu gaudituta GRALa, bi aukera izango ditu: bata, beste GRAL bat egitea fakultateak hurrengo ikasturtean eskaintzen dituen gaietako bat aukeratuta; bestea, truke programan egindako lanari eustea, ados jarrita fakultate honetako zuzendariarekin.

10.8.- Ikasleak ez baditu gaudituta gradua bukatzeko falta zaizkion irakasgai guztiak, baina, ordea, GRALa gaudituta badu beste unibertsitate batean, ikasleari ikasturte batean gordeko zaio GRALeko kalifikazioa.

11. ARTIKULUA: ARAUDI HAU EGUNERATZEA

11.1.- Graduako Koordinazio Batzordearen edo Fakultateko Batzarreko kideen ekimenez, arautegi hau aldatzeko proposamenak aurkeztu ahal izango zaizkio Fakultateko Batzarrari.

11.2.- Edozelan ere, arautegi hau onartu eta bi urtera, Graduako Koordinazio Batzordeak txostena bidaliko dio Fakultateko Batzarrari, arautegiaren ezarpenari buruzkoa, eta, egoki izanez gero, arautegia aldatzeko proposamenak egingo ditu.

11.3.- Arautegian aldaketarik eginez gero, aldaketak ez

10.4. Si el TFG realizado en el exterior ha resultado aprobado pero no ha sido defendido ante un tribunal, deberá ser defendido en esta facultad ante el tribunal nombrado al efecto, en cualquiera de las convocatorias que para ello se estipulan en nuestro centro, y siguiendo el procedimiento indicado en el Artículo 7.

10.5. En el caso que la calificación otorgada en la universidad de destino sea pass/no pass, se calificará con un 5 a quien haya obtenido un pass. Si el estudiante quiere subir esa nota, se le permite presentar y defender en la Facultad de Ciencias Químicas el TFG en cualquiera de las convocatorias que para ello se estipulan en nuestro centro, y siguiendo el procedimiento indicado en el Artículo 7.

10.6. Si la calificación otorgada en la universidad de destino es 10, el o la estudiante podrá optar a la mención de "Matrícula de Honor" defendiendo el TFG en esta facultad delante del tribunal nombrado al efecto, como se indica en el Artículo 6.4. La defensa se hará en la primera convocatoria abierta una vez que el coordinador o coordinadora de Programas de Intercambio reciba la calificación enviada desde la universidad de destino.

10.7 En caso de que el estudiante supere todas las materias para finalizar el grado pero no supere el TFG, podrá optar entre elegir un nuevo TFG de entre los ofertados en esta facultad en el siguiente curso académico, o retomar el Trabajo realizado durante su estancia en el programa de intercambio, previo acuerdo con un director o directora de esta facultad.

10.8. En caso en que el estudiante no supere todas las materias para finalizar el grado, pero haya aprobado el TFG en la universidad de destino, se permite que el estudiante mantenga la calificación del TFG durante un curso académico.

ARTÍCULO 11: ACTUALIZACIÓN DE ESTA NORMATIVA

11.1. A iniciativa de la Comisión de Coordinación de Grado o de miembros de la Junta de Centro podrán someterse a aprobación en Junta de Centro propuestas de modificación de la presente normativa.

11.2. En cualquier caso pasados dos años de la aprobación de la presente normativa la Comisión de Coordinación de Grado remitirá a la Junta de Centro un informe valorando su aplicación y proponiendo, en su caso, las modificaciones que considere.



die kalterik eragingo arautegiaren aldaketa onartu den ikasturtean ebaluatu diren gradu amaierako lanei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Gradu Amaierako Lanak egin eta defendatzeari buruz Fakultateko Batzarrak 2015eko urtarrilaren 28an onartutako arautegia.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN SARTZEA

Arautegi hau indarrean sartuko da Fakultateko Batzarrak onartu eta biharamunean.

AZKEN XEDAPENA – PROZEDURAK ETA AGIRIAK

Arautegi honetan aipatutako prozedura eta agiririk garrantzitsuenak:

- GRALerako izena ematea ikastegiko idazkaritzan graduako 168 kreditu gaindituta izanda.
- Sailak GRALerako gaiak eskaintzea jendaurrean (GAUR aplikazioaren bidez).
- Eskainitako proiektuak onartzea kasuan kasuko batzordean.
- Ikasleak GRALerako 5 gai aukeratzea, gaindituta izanda graduako 168 kreditu eta matrikula eginda izanda graduako gainontzeko irakasgaietarako (GAUR).
- Ikasleari GRALerako gaia esleitzea (GAUR).
- Jabetza Intelektual Partekatuari buruzko akordioak sinatzea.
- Gradu Amaierako Lana egitea (18 ECTS kreditu).
- Ikasleak matrikula egitea proiektua baino geratzen ez zaionean (UPV/EHUren prozedura).
- GRALa defendatzeko eskaria (GAUR).
- GRALaren konfidentzialtasun eskaria.
- Fakultateko idazkaritzan memoria aurkeztea, ADDI erabiliz.
- Zuzendariaren txostena.
- Jendaurreko defentsa epaimahaiaren aurrean.
- Baimena GRALa Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitalean (ADDI) argitaratzeko.

11.3. Cualquier modificación de la normativa no supondrá perjuicio para los Trabajos Fin de Grado evaluados previamente durante el curso académico donde se modifique la normativa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la anterior Normativa sobre la Elaboración y Defensa del Trabajo Fin de Grado de la Facultad de Ciencias Químicas aprobada por Junta de Facultad de 25 de noviembre de 2015

DISPOSICIÓN FINAL. ENTRADA EN VIGOR

Esta normativa entrará en vigor a partir del día siguiente a su aprobación en la Junta de Facultad.

DISPOSICIÓN ADICIONAL - PROCESOS Y DOCUMENTOS

Los procesos y documentos más importantes a los que se hace referencia en este reglamento son:

- Preinscripción en Secretaría del Centro realizada por la alumna o el alumno, teniendo aprobados 168 créditos del Grado.
- Oferta pública de los TFG por parte de los Departamentos (disponible en GAUR).
- Aprobación de los proyectos ofertados por la comisión correspondiente.
- Selección de hasta 5 TFG realizada por la alumna o el alumno, teniendo superados al menos 168 créditos de Grado y matriculadas el resto de las asignaturas del grado (GAUR).
- Asignación a cada alumna o alumno de un TFG (GAUR).
- Firma de los acuerdos sobre la Propiedad Intelectual Compartida.
- Realización del Trabajo de Fin de Grado (18 créditos ECTS).
- Matrícula realizada por la alumna o el alumno, cuando solo le resta el proyecto (procedimiento UPV/EHU).
- Solicitud de defensa del TFG (GAUR).
- Solicitud de Confidencialidad del TFG.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

<ul style="list-style-type: none">• Epaimahaiaren txostena eta akta.• Trukerako programei buruzko arautegia, Kimika Zientzien Fakultatekoa.	<ul style="list-style-type: none">• Entrega de la Memoria en Secretaría de la Facultad, vía ADDI.• Informe del director.• Defensa, ante el tribunal y el público.• Autorización para publicar el TFG en el Archivo Digital para la Docencia e Investigación (ADDI)• Informe del Tribunal y Acta.• Normativa para programas de intercambio de la Facultad de Ciencias Químicas.
--	---